

## ERAIKIN NAGUSIKO SUAREN AURKAKO ATEETAN ESKU HARTZE ARTISTIKO BIDIMENTSIONALAK EGITEKO DEIALDIA

Deialdi honen helburua da lau proposamen bidimentsional aukeratzea, gehienera, suaren aurkako ateetan esku hartzeko Arte Ederren Fakultateko eraikin nagusiko lauki formako aldean.

### 1.- Parte hartzaileak

Deialdia zuzenduta dago 2020/2021 ikasturtean UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatuta dauden graduako eta graduondoko ikasleei.

Proposamenak banaka edo taldean aurkez daitezke.

Proposamena talde batek egiten badu, ordezkari bat izendatu beharko da komunikazioa errazteko.

### 2.- Proposamenen ezaugarriak

Gai askeko esku hartze bidimentsionala izango da eta eraikin nagusiko suaren aurkako ateetan jartzeko planteatu beharko da, kontuan hartuta ate horien neurriak eta ezaugarri formalak eta, batez ere, ateen funtzionalitatea errespetatu behar dela.

Pertsona edo talde bakoitzak lau proposamen aurkeztu ahal izango ditu gehienera, ate baterako zein ate batzuetarako aldi berean.



### **3.- Ekoizte baldintzak**

Aukeratutako proposamen bakoitzak 300 euro jasoko ditu laguntza gisa. Lana egiteko materialak Arte Ederren Fakultatearen kontura izango dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira.

### **4.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Ondoren aipatzen diren dokumentuak pdf formatuan bidaliko dira posta elektronikoz, helbide honetara: [ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)

- CV laburra eta datu pertsonalak.
- Portfolio bat, aurretik egindako bost proiektuekin gehienez.
- Esku hartzearen proposamen zehatza DIN A3 formatuan.
- Erabiliko diren materialak.
- Fotomuntaketa edo zirriborroa.
- Materialen gutxi gorabeherako aurrekontua.

### **5.- Proposamena aurkezteko epea**

Proposamena aurkezteko epea urriaren 26an amaituko da.

Proposamenak epaimahai batek ebaluatuko ditu. Epaimahaiko kideak izango dira fakultateko dekanoa edo hark bere ordezkari izendatuko duen pertsona, Unibertsitate Hedakuntzako dekanordea, Plangintzako eta Ekonomia Gaietako dekanordea, eta ikasleen ordezkari bat.

### **6.- Proposamenak jartzea**

Fakultatearekin adostuko da proposamenak noiz jarriko diren, esku hartze bidimentsionalaren motaren arabera, eta ahalegina egingo da lanak ez jartzeko korridoretan jende gehien ibiltzen den orduetan.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute betetzeko ikastegiak helaraziko dizkien arauak esku hartzea garatzeko. Era berean, jatorrizko proposamena aldatuz gero, aldaketen berri emango dute.

Onuradunek ere izango dituzte egindako lanaren jabetza intelektualaren eskubideak.

## **7.- Oinarriak onartzea**

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek eta epaimahaiak hartzen dituen erabakiak onartzea eta horiekin erabat ados egotea.

Oinarri hauetan jasota ez dauden egoerak antolatzaileek ebatziko dituzte, egokien irizten zaien moduan.

## **8.- Kontsultak eta zalantzak**

Zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, idatzi helbide hauetako batera:

-[ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)

-[arantza.lauzirika@ehu.eus](mailto:arantza.lauzirika@ehu.eus)